

Marmari Leitzako aldizkaria

32. zenbakia / 2020ko abendua

- Marmarik 20 urte
- Leitzako burdinolak
- Perea Zabaletari elkarrizketa
- 2020, ezohiko urtea
- eta gehiago...

Asko al da
20 urte?



zenbaki honetan:



3. or. Aurkezpena

4-5. or. MARMARI aldizkariak 20 urte

6-7. or. 2020, ezohiko urtea

8-15. or. Leitzako burdinolak

16-17. or. Institutuan bukatu ondoren, zer?

18-23. or. Nerea Zabaletari elkarrizketa

24-26. or. Leitzan bizitzea, pribilegioa euskaraz bizi nahi dugunontzat?

28. or. Euskararen kriseilua Eretako familiak argitzen



20 URTE

MARMARI aldizkariak 20 urte egin ditu. Nola begiratzen zaion, ez da hainbeste denbora. Baina egia da gauzak asko, benetan asko, aldatu direla. Hainbeste aldatu izanagatik, ordea, gaurko egunean jarrita duela 20 urtekoa gogoratzea ez da hain zaila, eta lehendabiziko zenbaki hura eskuetan hartuta, testuak eta irudiak ikusita, ez zaigu hain arrotz eginen. Aldatu dira gauzak, bai, baina ez zaigu zeharo ahaztu nolakoak ziren.

Alderantzizko ariketa, ordea, askoz zailagoa, edo erabat ezinezkoa izanzen. Orduan inork galdetu baligu 2020. urtea nolako izanzen zen, ez genukeen asmatuko. Eta zer zetorren esan baligu,

ez geniokeen sinetsiko. Bizimodua bera asko aldatu da, nahasi, azkartu..., eta iraultza teknologikoak badu horretan zerikusia. Baina inork pentsatuko eta irudikatuko ez zuena da pandemia global batek ekarriko zigun panorama hau, aurtien bizi izan duguna. Krisi erabateko honen azpiko arrazoi eta gertaera asko ziur asko bazetozen garai hartatik, baina pandemiak dena azaleratu eta azele-ratu egin du, indar ikaragarritz.

Gai horri ere, beraz, begiratu bat eman diogu MARMARIren 20. zenbaki honetan, ezinbestean, herritar batzuei galdetuta. Baina horretaz gain, baditugu bestelako gai mamitsu eta interesgarri batzuk ere. Bi atal luze eta sakon, bes-

teak beste: burdinolei buruz Malen Lizarragak osatutako erreportajea eta Nerea Zabaletari egindako elkarrizketa.

Atal mamitsu horiekin batera, eta pandemiari buruzko galdetegitxo horretaz gain, aldizkaria beste zenbait artikulu edo atal interesgarriekin osatu dugu: Erleta eskolakoek egindako kolaborazioa, Amazabal Institutuak emandako datuekin atera dugun estatistika, euskararen ingurukoak, MARMARIren 20 urteak gogoratzeko idatzia...

Hementxe duzu, beraz, ezohiko urte honetan argitaratutako MARMARI. Ea urte arraro eta gogor honen bukaera pixka bat goxatzeko balio digun.



MARMARI aldizkariak 20 urte

Aise esaten da, baina bada zerbait. 20 urte egin ditu aurten MARMARI aldizkariak, eta esku artean daukazuna 32. zenbakia da. Urtean bitan argitaratzen zen hasieran, 2000. urte hartan, eta urtean behin argitaratzen hasi zen 2008. urtean, 17. zenbakitik aurrera hain zuzen ere.

Sorrerako garai hura gogora ekarrita, aipatu beharko da aldizkaria izen bereko euskara talde batek sortu zuela. Marmari, izan ere, garai hartan euskara zerbitzuaren ekimenez sortutako eta gazteek osatutako Leitzako euskara taldea

izan baitzen. Horren inguruko argibide eta xehetasun guztiak aldizkariaren lehendabiziko zenbaki hartan ikus daitezke, www.iparmank.eus webguneko *Argitalpenak* atalean sartuta. Hor daude, hain zuzen ere, orain arte argitaratutako MARMARIren zenbaki guzti-guztiak.

Bertan ikus daitekeenez, hasiera hartan MARMARI Leitzako aldizkari gaztea zen, Marmari taldeak egin zituen ekintza edo jardueren arteko bat. Taldeari dagokionez, eta hura zer zen labur jasotzeko, sortzaileek (sortzaileak nor

izan ziren ere aldizkarian bertan ikus daiteke, argazki eta guzti), aldizkariako lehendabiziko zenbaki hartan esandakoa ekarriko dugu hona. Hauxe zioten:

MARMARI. ZER GARA? NOR GARA?

ZER GARA?

- Leitzako talde bat
- Leitzako euskara talde bat
- Leitzako euskara talde bat, gazteek osatua

ZER EZ GARA?

- Euskararen salbatzaileak
- Euskaltzaindiaren komisarioak
- Euskalduntasunaren esentziaren zaindariak
- Euskararen parakaidistak

NOR GARA?

- Koadrilla ezberdinetako lagunak
- Jende gaztea
- Euskararen alde zerbait egin daitekeela pentsatzen dugunak
- Pentsatzeaz gainera, zerbait egin nahi dugunak, eta saiatzeko garenak

NOR EZ GARA?

- Herriko euskaldun jatorrenak
- Euskara txukunena dugunak
- Euskal dantza eta kanta guztiak dakizkigunak

Horrela sortu zen, beraz, MARMARI aldizkaria, talde horren ekimen eta tresna gisa. Taldeak bizpahiru urteko iraupena izan zuen, eta tartean ekimen interesgarri batzuk egin zituen, euskararen alde eta bereziki gazteei begira. Taldea desegin ondoren, berriz, Leitzako Udaleko euskara zerbitzuak hartu zuen aldizkariari eusteko ardura, eta ordutik gaur arte euskara zerbitzua bera izan da aldizkaria osatu eta argitaratu duena, zenbaitetan herriko eragile edo norbanakoen idazlanekin edo kolaborazioekin osatuta. 2004. urtetik aurrera, lehendabiziko bederatzi zenbakietan *Leitzako aldizkari gaztea* izan zena, *Leitzako aldizkaria* izaten hasi zen.

Hasieran, esan bezala, aldizkaria oso modu nabarmenean gazteei zuzendua zen, baina pixkanaka begirada orokortzen hasi zen, eta adin-talde guztientzako aldizkari bihurtu zen, nahiz eta gehienbat gazte eta helduentzat zuzendua izan.

Bide horretan, beraz, 20 urte egin ditu aldizkariak, eta denbora tarte horretan makina bat gai lantzeko eta elkarriketa mordoxka bat egiteko aukera

izan da, noski. Askotariko gaiak, bai, baina gehien-gehienetan, Leitza gaitzat hartuta. Euskara zerbitzuak sustatutako eta egindako aldizkaria izanda, jakina, euskarak eta euskararen normalizazioak beti izan dute espazio garrantzitsu bat aldizkarian, baina horrekin batera herri gintza izan da gai nagusia, modu zabalean ulertuta, baita kultur gintza eta herriari buruzko ezagutzaren dibulgazioa ere.

Ibilbide horretan landutako ideia bat izan dezagun, ez ditugu landutako gai guztiak edo elkarriketatutako lagun guztiak aipatuko, baina bai batzuk, lagin zabal gisa.

Jorratutako gaien artean, esate baterako, honakoak ditugu: Aurrera elkarteak, euskararen erabilera herrian, gazteak Leitzan, Saharatik Leitzara ekimena, hizkuntza-jokoak, Leitzari buruzko test gisako ariketak, Leitzako populazioa, esaera zaharrak, euskararen inguruko topikoak eta aurreiritziak, leitzarren izenak, musika eta parranda Leitzan, Leitzako argazkiak eta irudiak, kirola Leitzan, Leitzako toki-izenak, Leitzako hizkerak, homosexualitatea Leitzan, Maxurrenea, etorkinak Leitzan, Okille tailerra, Mendibil mendi taldea, Leitzetgia, suhiltzaileak, kanpoan ikasten ari diren leitzarrek, krosa, kultur taldea, karramarroak Leitzako erreketan, Leitzako haur eskola, Leitzako bizitza soziala, gizarte zerbitzua, Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza, euskararen inguruko datuak Leitzan, Leitza lehen eta orain, liburutegia, lana eta enplegua Leitzan, herriko baserrien irudiak, Plazaolako trenbidea, Asketa gazte, kultur astea, Leitzako fauna, hizkuntza paisaia, Bai Euskarari, Cederna-Garalur, hizkuntza eskubideak, izen-abizenak euskaratzea, UEMA, euskaraz bizitzeko baliabideak, euskararen aldeko urratsak, Etxepare saria, euskarazko produktuen katalogoa, Peru-harri, hizkuntzaren jatorria, kultur taldea, ihauteriak, Leitzako hiztegia, Denok bat guraso elkarteak, Kax-kax eus-

kara taldea, Leitzako forua, Atekabeltz, konposta, moarratzea, familia eta euskara, Manuel Lasarte, bertsogintza Leitzan, Leitzako dantza taldea, Petra Azpiroz, hileta zibilak, Amazabal patronatua, eskualdeko herrien arteko lankidetzak, berdintasun zerbitzua, herriko ikastetxeak, turismoa eta euskara, herri aretoa, Leitzako mapa, Euskal Herria Mendi Erronka, Sastraka emakume taldea, maldizioak eta juramentuak Leitzako euskaraz, indarkeria matxista, Leitzulia, Ekuaboley, Korrika, Kale edo bale Balikebale, arnaguneak, herri kirolak, Leitzako kontsumo taldea, Leitzaketa, eta beste hainbat.

Horiek guztiak erreportaje edo artikuluko gisa landu dira. Horretaz gain, hainbat elkarriketa egin ditu aldizkariak. Azken orrialdeko elkarriketa arin eta labor mordoxka bat, eta baita elkarriketa luze eta sakonak ere, honako herri-tarrei, adibidez: Fran Hernandorena, Diego Riaño, Unai Zabaleta, Asier Arzallus, Ur Algero, Ainara Roda, Begoña Lazkano, Harkaitz Delgado, edo Mari Jose Barriola.

Eta erreportaje eta elkarriketez gain, denborapasak, argazki osatutako atalak, testak, kolaborazioak, ipuinak eta beste hamaika kontu.

Herriak, 20 urte hauetan, bilakaera bat izan du, jakina. Aldatu egin da Leitza, eta aldatu egin da MARMARI bera. Zenbaki zaharretatik hasi eta azkenekoe-taraino aldizkariari errepaso bat emanda, aldaketa hori aise nabaritu dugu. Urte horietan guztietan MARMARIk ahalegin bat egin du herriari ekarpen bat egiten, euskararen eta oro har herriaren inguruko hainbat gai, gogoeta eta informazio ekarriz, horrek guztiak herri-tarriak entretenitzen, informatzen eta kontzientzia-razten lagunduko zuelakoan, eta, bide batez, euskararen erabilera indartzen, euskara sustatzen, herriko bizitza aberastan eta herria pixka bat kohesionatzen ere lagunduko zuelakoan. Hala izan den edo ez den izan, irakurleak esanen du.

2020, ezohiko urtea

Pandemia batek jo gaitu 2020. urtean, baita Leitzan ere noski, eta lehendik heldu zen askotariko krisi sakona areagotu egin da eta areagotu egin dira horren ondorioak. Krisiak, izan ere, agerian utzi ditu lehendik ere gizarte honetan egon bazeuden gabeziak, bidegabekeriak eta konpondu beharreko arazo handiak eta sakonak.

Asko hitz egin eta idatzi da horretaz guztiaz. Marmari aldizkarian ere tokitxo bat egin nahi izan diogu, labur bada ere Leitzako eta leitzarren ikuspegia neurri batean jasotzeko. Sei herritarri eskatu diegu iritzia, galdera jakin batzuen inguruan, begirada horien bitartez ikuspegi zabalago bat izateko, eta denontzat interesgarri izanen diren gogoetagaiak ekartzeko. Honatx herritar horien iritzia:



Xabat Illarregi

- 1.- Tristea eta antinaturala
- 2.- Egoera batean errudunak seinalatze-ko dugun gaitasuna (beti besteak) eta ikustea nola dauden bizitzen gainetik interes ekonomikoak. Horrez gain, kulturaren bazterketa, gazteak erruduntzat hartzeko joera, presoen dispersioa eta senideei jarririko oztopo denak, ikas baldintza eskasak... etab. areagotu ditu krisi honek, edo krisi egoera hau "kudeatu" dutenek.
- 3.- Herrigintzaren balorea eta efikazia azaleratu direla batetik eta gobernuek duten kuadeaketa eskasa agerian geratu dela, bestetik (hau alde ona bezain txarra da).
- 4.- Eskuzabaltasunez eta kontzientziaz, horren erakusle konfinamenduko zain-tza sarea eta udalaren koordinazio lan fina.
- 5.- Nahi dutena egiten dutela gurekin eta ez dela hutsetik eta hutserako sortu den birus bat hau.
- 6.- Zer egingo duten gurekin eta zer den gure eginbeharra honen aurrean, ezin gara horrela geratu; dena onartzen dugu eta.



Amaia Etxeberria

- 1.- Gogorra eta tristea.
- 2.- Alde txar asko izan ditu, ekonomikoak izugarriak izan dira familia askorentzat, bakardadea eta beldurra, inpotentzia gaixotasun eta birusaren aurrean, etab.
- 3.- Familia eta lagun artean egoteak daukan balioaz jabetzea.
- 4.- Nik uste dut orokorrean jendeak ongi erantzun duela.
- 5.- Horrelako krisi edo pandemia bat gainditzeko denen elkartasuna eta kolaborazioa ezinbestekoa dela.
- 6.- Kezka, birusa desagertu eta lehenagoko bizimodura bueltatuko ote garen. Eta erronka nagusienetako bat, osasun sistema publikoa indartzea eta hobetzea.

Galderak:

- 1.- Nola definituko edo laburtuko zenuke 2020. urtea, bi hitzetan?
- 2.- Zein izan da krisiaren alderik txarrena, heriotzak eta gaixotzeak alde batera utzita?
- 3.- Krisiak alderdi onik izan al du? Zein?
- 4.- Nola erantzun dio Leitzako herriak, oro har, krisiari?
- 5.- Zer da krisitik ikasi beharko genukeena?
- 6.- Zein dira etorkizunerako kezka eta erronka nagusiak?



Iruñe Alkorta

- 1.- Urte gogorra eta tristea.
- 2.- Txarrena gizakien arteko ezberdintasunak areagotu direla, giza banakoaren gabeziak areagotu direla eta bakardadea.
- 3.- Bai izan du, egon diren elkartasun ekintzak nagusiki.
- 4.- Denontzat egoera berria eta larria izan da baina beharrak (behar ekonomiko, afektibo, osasun beharrak...) izan dituzten herritarrei laguntzeko edo aholkatzeko ekintzak falta izan direla pentsatzen dut. Hainbat herritar gai ezberdinetan nora jo jakin gabe egon direla sumatu dut...
- 5.- Sistemak oro har, ekonomia pertsonen zerbitzura jarri behar duela.
- 6.- Kezka: Pasa dena ez errepikatze-ko, memoria izanen ote dugun. Eta erronka nagusia: gauzak egiterakoan eta bizitzerakoan kontzientzia eta koherentziari eustea, eta ekonomiaren menpeko ez bihurtzea.




Oihane Calderon

- 1.- Etapa berri baten kaosa.
- 2.- Jendearekin ez nahi bezainbeste elkartzea eta aisialdiaz gozatzeko aurkitutako mugak. Honek ondorio emozional, sozial, psikologiko eta fisiko ugari ekarri ditu.
- 3.- Bai, noski. Krisia izan daiteke dekadentzia eta izan daiteke ikasteko eta mundu berri bat eraikitzeko aukera bat. Balio du lehen-tasunezko beharrak identifikatzeko, sormena lantzeko, zailtasunetik zirrikitu eta argi berriak topatzeko, gure herria balorean jartzeko, inprobisazioan mugitzen ikasteko...
- 4.- Txapela kentzeko moduko jarrrera. Auzolana gailendu da eta horri esker lortu da herritar guztien zaintza bermatzea.
- 5.- Hemen eta orain bizi beharra dagoela.
- 6.- Askok ikusten ditut. Haurren kasuan jolaserako aurkitzen dituzten mugek haien garapenean duten eragina. Gaztetxoek kasuan, harremantzeko moduek eta pantailek izan ditzaketen eraginek kezkatzen naute. Helduenen kasuan pandemiaren eraginez emozionalki eta fisikoki jasaten ari diren ondorioak. Gizarte mailan, krisi ekonomikoak ekarriko dituen guztiak, osasun publikoaren egoera...
Erronkari dagokionean, etapa berri honetan mundu hobe bat eraikitzeko zutabeak ongi definitzea aipatuko nuke.




Arantzazu Lizartza

- 1.- Distopia bat.
- 2.- Askok. Eremu publikoaren desagertzea eta ekintza politikoaren ukazioa; areago, bizitza biologikoak bizitza politikoa irentsi duela. Estatuaren indarkeria neurrigabekoa eta egia-osteko aroaren gailurra. Osasun kontzeptuaren itxuraldatzea, osasuna=infekzio eza moduan kudeatu delako, osasuna osasungintzatik haratago doala ahaztuta. Gobernamentalitate digitalaren baitako gizarte diziplinario eta errendimenduaren gizartearen katalizatzea eman da, zalantza gabe, kapitalismo kognitiboaren (Google eta klik-ak) ekoizpen igoera sintoma agerikoa izan delarik. Klase arrakala gehiago zartatu da. Eta...
- 3.- Antropozenoaren amaieran pentsarazi daitekeela. Arima komunitarioaren –zaintza erdigune- indarra eta gaitasunaren puntako erakustaldiak egon direla eta amaraun telematikoak giza harremanak mantentzeko lanabes “egoki” direla (digitalizazioaren beste aurpegia). Pertsonalki, pandemiako bizipenek proiektu profesionala zehazten lagundu didate.
- 4.- Ezin lehen pertsona hitz egin, lanean ibili naizelako pandemian; baina herritar bezala, era baikor batean baloratzen dut erantzuna: herritarren babes sarearen lana eta bertako baserri/ekoizleen lana goraituko nuke.
- 5.- Krisi ekologikoa egungo eredu ekonomiko xahutzailearen ondorio garbia dela: ekosistema basatien suntsitzeak, etekin ekonomiko irizpide bakartzat duen elikagai ekoizpenak eta klima aldaketak epe ertainean helduko zaizkigun beste pandemiaren aitzindariak izanen direla, Covid-aren aitzindari izan diren bezalaxe. Koronabirusaren agerpena ez baita aurreikus ezina izan.
- 6.- Munduak gu gabe eta guk mundu gabe funtziona dezakegula: zer pentsatu asko ematen dit...



Patxi Lizarraga

- 1.- Memoria kolektiboaz hitz egiten dugunean, mundu mailan inork ahaztuko ez duen urtea izango da 2020. urtea.
- 2.- Alderdirik txarrena ez dakit, baina elkarren arteko segurtasun distantziak hartu behar izateak, kontaktua desagerrarazi du; eskuarekin sorbalda ukitzea, besarkadak ematea... goxotasun keinu garrantzitsuak galdu ditugu.
- 3.- Nire kasuan, ezagutzen nautenek badakite ez naizela batere mendizalea. Bada, bizimodu berri honek, hurrekin mendira joatea erakargarri bihurtu du. Ez dago gaizki!
- 4.- Jendea arduratsu dabilela iruditzen zait. Arauak errespetatzen ditugu, musukoa erabiltzen dugu (edo erabiltzen ez dutenek, segurtasun tarteak mantentzen dituzte)... Ohikoa hori da. Badira batzuk ez dabilzala horren fin, baina, esan bezala, ez da ohikoa.
- 5.- Gauza bakarra esan beharko banu eta horrek zerbaitetarako balioko balu, hauxe esanen nuke: Zientzia eta osasungintzan inbertitzea errentagarria da. Zenbat eta gehiago inbertitu, orduan eta hobeto. Pandemia honek eragin duen krisietako bat osasun zerbizuetakoa izan da. Hori dela eta, egoera larria bilakatu zenean etxeratu gintuzten denak eta, horren ondorioz, sekulako krisi ekonomiko sortu da. Ospitale, baliabide, osasun profesional, zientzialari eta ikertzaile gehiago izateak ez dakit zein “kostu” izanen duten, baina dudarik ez dut konparazioan huskeri bat besterik ez dela izanen.
- 6.- Maila ezberdinetan (banakoa, taldea, gizartea) honetatik ikastea espero dut, eskuzabalagoak egiten gaituzten erabakiak hartzea eta akats berak ez errepikatzea.




Leitzako burdinolak

...de la ferrería de Reçuma nos ha seydo presentada una suplicaçión a causa de lo que les es debido por los ferrones que por eillos serían en la dicha ferrería antes del tiempo de la guerra que (-) nos fue fecha por el rey de Casticilla. Et bien así, de lo que los guipuzcoanos levaron robadas los bienes de la dicta ferrería al tiempo de la dicta guerra et otros daynos por eillos recibidos. En esta causa de la dicta ferrería, suplicándonos que de los quarteles, lezta, imposición et quoaes quiere otros derechos a nos pertenecientes en aquiella les fiziesemos gratia et remisión, así que refiziesen et podiesen poner en estado la dicta ferrería... (1430ean Blancak, Nafarroako erreginak, eta bere senar, Juan II.ak, Errezumako jabeei egindako barkazioa: zergak ordaindu ez eta horrela, burdinola berreginen zuten. Iturria: NAO, Co_Documentos, Caj.130, N.9, 4¹).

¹ Testuan zehar erabiltzen diren erreferentzia historikoak hala Nafarroako Artxibo Orokorreko prozesu eta protokoloetatik nola Leitzako Udal Artxibategiko dokumentuetatik lortuak dira.

SARRERA

Burdinaren produkzioak garrantzi handia izan zuen Nafarroako iparraldean -batez ere, isuri atlantikoko herrietan-, eta, beraz, baita Leitzaldean ere. XIII. mendearen bukaerakoak dira burdinaren inguruko lehenengo aipu historikoak -Nafarroako Artxibo Orokorrean jasoa-, eta, XIV. mendearen lehenengo erdialdean, aipuak tantaka-tantaka agertzen hasten badira ere, jada Leitz, Basaburua Txikia eta Doneztebeko bailarekin batera, errege-erreginei zergak ordaintzen zizkieten meatze eta burdinola toki bezala agertzen da. 1321ekoa da Leitzako burdinolen inguruko aurreneko albistea, eta, bertan, gipuzkoarren-gandik jasandako erasoek sortutako beldurra zela eta, burdina ekoizteko ezintasuna aditzera ematen da. 1339an ezagutzen dugu Nafarroako lehenengo



burdinola: Lesakan ageri da *Bereau* ize-
 nez. Eta erresumako diruzainaren
 1343ko kontuetan, Leitzan, *La Rezuma*
 eta *La Medrana* olak badabilzala ager-
 tzen da; *Urto*-koa geldirik dago; eta,
 gainontzekoak, deseginda².

Hemendik aurrera, burdinolen ingu-
 ruko albisteak eta erreferentziak ugari-
 tu egiten dira. Kontuan hartzekoa da,
 hala ere, gure eskualdeak Gaztela eta
 Nafarroako erreinuen arteko muga osa-
 tzen zuela, eta honek, konkista bukatu

arte behinik behin, bertako bizimodua
 moldatuko duela. Baina, gatazkak ga-
 tazka, burdinaren produkzioak eta bere
 merkataritzak aurrera jarraitu zuten, eta
 XIX. mendea arte gure herrian hainbat
 ola lanean aritu ziren.

² Mugueta, I. (2010). La primera industrialización en Navarra: las ferrerías en la Baja Edad Media, *Huarte de San Juan*, 16, 9-58. orrialdeak. Behe Erdi Aroko burdinolen eta burdin produkzioaren inguruko ikerketa sakonenak Nafarroako Unibertsitate Publikoko irakasle den Iñigo Muguetak egin ditu eta bere lanetik hartu ditugu informazio hauek.



Los Ferrones artelana. Haizeola bateko lanaren idealizazioa Ricardo Barojaren margolanean (1941ean datatua). Iturria: Auñamendi Eusko Entziklopedia: <http://aunamendi.eusko-ikaskuntza.eus/en/photo/mu-17713/> (2020/10/27).

HAINBAT KONTU

Burdina lurrazalean aurki dezakegun elementu geokimiko ugarienetakoa bada ere, bere ustiapena berantiarra izan zen gainerako metalekin konparatzen badugu. Honen arrazoia, burdin mearen fusio tenperatura altua da. Izan ere, brontzea edo kobreak ez bezala, burdinak oso tenperatura altuak behar ditu urtze puntura iristeko. Hortaz, nola ekoizten zuten burdina gure arbasoek?

Euskal Herrian, bakarrik XIX. mendean eta labe garaiei esker zabaldu zen burdina urtze teknologia. Behe Erdi Aroan eta Aro Berrian, burdinola hidraulikoak izan ziren burdin ekoizleak. Lantegi hauek uraren indarra erabiltzen zuten makineria martxan jartzeko, eta oso aurrerapen teknologiko garrantzitsua izan zen. Izan ere, burdinola hidraulikoen inguruko lehenengo albistek XIII. mende bukaerakoak izanagatik, ez ziren zabaldu eta finkatu XV. mendera arte. Denbora tarte hau aldaketarako trantsiziotzat har dezakegu. Burdin lantegiak erreka bazterretan kokatu baino lehen, metal hau mendiko oletan ekoizten baitzuten.

- **HAIZEOLAK EDO MENDIKO OLAK:** izenak dioen bezala, mendian eta lehengaietatik hurbil kokatu eta mea murrizten zuten labe txikiak ziren. Lu-


rrean erdi hondeatuta eraikitzen zituzten; material erregogorak erabiliz (buztina, harria...); eta giza indarra behar izaten zuten tenperatura altutara iristeko. Mea txikitu eta garbitu ondoren, kiskali egiten zuten -lehenengo erreketan ematen zioten-, eta labean sartzeko prestatzen zuten. Labe hauetan burdin mea eta ikatza tartekatzen zituzten; horrela, zepak bereizi eta burdin metala eskuratzen zuten, gerora kolpatu eta lantzeko³. Mendiko labe hauetan, beraz, lana guztiz eskuzkoa izaten zen, eta, hortxe zegoen gako. Izan ere, burdinola hidraulikoen uraren indarrak baliatzen hasi zirenean ekoizpena asko handitu zuten.

- **BURDINOLA HIDRAULIKOAK:** energia hidraulikoa produkzio prozesuan aplikatzearen ondorioz, olak mendietatik erreka bazterretara jaitsi ziren, eta egitura konplexuak eraikitzen hasi ziren. Lurraldean ustiatzeko modu berri bat sortuko zen: aldaketa handiak eraginez ekoizpenean, ikatz horniduran eta mineral horniduran. Burdinola hidraulikoak berezkoak eta funtzionatzeko beharrezkoak zituen zenbait elementu ditu, hala nola presa, kanala, erregulazio urtegia (ez beti), antepara, tailerra edota kiskaltzeko labeak.

Burdin meak instalazio hidraulikotan ere fase ezberdinak behar zituen eraldatzeko. Burdin mea eskuratuta, txikitzea eta garbitzea beharrezkoa zen, ondoren lehenengo errealdia egiteko. Honi esker, harriak duen hezetasuna desagertu egiten da, eta pisua galtzen du. Lehenengo kiskaltze hau tenperatura nahikoa baxuetan egiten zuten, eta, beraz, arragoetako egur suarekin nahikoa zuten, egurrikatza erabiltzeko beharrik izan gabe. Jada mea prest zutenean, ordea, ikatzez beteriko labe baxuetan sartzen zuten, eta hauspoen bitartez bizitzen zuten sua. Sutegietan burdin masa oreitsu modukoa lortzen zuten, zepatik bereizitakoa, zeina burdina baino likidoagoa baitzen. Agoa edo burdinazko bola labetik ateratakoan, ingudera eramaten zuten, eta tenazak erabiliz eta mailuarekin erabat joaz, hondakinak edo zepak kanporatzen zizkieten, burdinari trinkotasuna emanez. Sistema honi zuzeneko prozesua deritzo: erredukzioa eta forja.

Egoera sozioekonomikoaren eta kokapenaren arabera, burdinola mota ezberdinak izan ziren. XVI. eta XIX. mendeen artean, ezagunenak burdinola nagusiak eta txikiak edo olatxoak ditugu (*ferrerías mayores y menores o marti-*

³ Etchezarraga, I. (2004). Paleometalurgia del hierro en el País Vasco Cantábrico: las haizeolak. Un estado de la cuestión. *Munibe*, 56, 87-104.



Errezumako presa. Burdinola honetan, oraindik ere, presa eta kanala osorik daude.

netes, gaztelaniaz): lehenengok, burdin mea eraldatzen zuten, azaldu berri dugun prozesuaren bidez; eta, bigarrenek, burdinola nagusietan lortutako burdin totxoak produktu ezberdinetan eraldatzen zituzten, hala nola iltzeetan, ferretan, arkuetan eta abar. Horregatik, burdinola nagusiak eta txikiak ezagutuko ditugu, baina baita prozesu guztia osatzen zuten instalazioak ere, edota altzairua ekoizten zutenak.

LEITZAKO BURDINOLA HIDRAULIKOAK

Esan dugunez, XIV. menderako Leitzaldean hainbat burdinola zeuden; osteko mendeen artean ugarituko dira gehien; eta XIX. mendera bitartean, aldaketetara hobekien moldatzeko gai izan zirenek iraun zuten. Badirudi, indartsuenak zirela.



Urđiñolako kanalaren zati bat, harria zulatuz sortutako tunel modukoa.

- **Errezuma / La Rezuma:** dokumentatua dagoen Leitzako burdinolarik zaharrenetakoa eta XIX. mende arte iraun zuena. Ez daukagu bere sorreraren berririk, baina 1343a baino lehen

martxan zegoela esan dezakegu: 1372an, adibidez, 12 libra ordaintzen zizkion erregeari lezta zela-eta. 1525ean, Nafarroaren konkistaren ondoren, Martin Leiza zen jabe bakar,



Sarasainen kontserbatzen diren egituretako bat.

Urdanoz-Goñitarrei olaren erdia erosi ondoren. Handik aurrera, burdinolaren jabetza eskuz-esku pasa zen, 1824ean, Leitzako herriak erosi arte. Jabeen artean: Martin Leiza (1525); honen alaba, Katalina Rezuma eta Leiza (1553); biloba Katalina Rezuma, Martin Zumarristarekin ezkondua (1569); Joana Zumarrista eta Cristobal Arano (1605); eta Catalina Arano eta Fernando Perez Nopera (1635) izan ziren -Gorritiko Taularen arduraduna-. Ondoren Nogeratarrek mantendu ziren jabegoan.

- **Iñurrista:** Johan Lopez Rezuma kapitaina izan zen burdinola zutik ikusi zuen azkeneko jabea. Aipatu kapitaina, Martin Leizaren semea zen eta Katalina Rezumaren ugazanaia. Honen heriotzaren ondoren, 1570 aldera, burdinola desegin egin zen, eta, 1590 inguruan, auzi interesgarri batean sartuta ibili ziren Johanen oinordekoak.


Izan ere, Iñurrista geldirik zegoela, Astibia eta Errezumakoek honen tresneria eta materiala lapurtu omen zuten, argitara ateraz burdinolen arteko lehia. Ola zaharra zegoen tokia herriak bereganatu zuen, eta errota bat eraiki. Azkenik, 1732an, Iñurristan errota berria eta kobrezko eltzeak egiteko olatxoak eraki zituzten (*martinete de calderas de cobre*). Badirudi, gaur ezagutzen dugun Olaberria izena hartu zuela ondoren⁴.

- **Astibia:** itxura du Beheko Astibi baserria egun den tokian zegoela ola, erreka bazterrean. Erdi Aro bukaerarako dokumentatua dago, eta, 1530 inguruan, Migel Gorritik berreraiki zuen. Jakin ere, badakigu, 1567an, Martin Lorenz Astibiak Martin Lezaetari eman ziola olaren laurdena errentan 29 burdin kintalen truke. Ohikoa zen, batez ere XVI. mendera arte, burdinolen errenta eta jabetza kide bat

baino gehiagoren artean banatuta egotea. Olaren inguruan daukagun azken berria 1690 ingurukoa da, etxea bertan mantendu bazen ere. Datu bitxi bat ere badaukagu: 1754ean, Astibiako ola zaharraren inguruan zegoen burdin zepa Goiko Errotako presa berreraikitzeke erabili zuten; hain zuzen ere, 620 gurdi behar izan zituzten, eta garrarioak 80 dukat balio izan zuten.

- **Urto:** burdinola zaharrenen eta gehien iraun zutenen artean dago. 1570 aldera, Leitzako kontzejuak erosi zuen burdinola, eta udal-ola bilakatu zen. Horrek zer esan nahi zuen? Udalak enkantean jarriko zuela ola, eta eskaintzarik onena egiten zuenak lortuko zuela hura errentan hartzea. Bestalde, errenta-kontratuan ez zen bakarrik burdinola sartzen, herriak ikatz eta materialetarako basoak ere ematen baitzizkion eta baita mea eskuratzeko erraztasunak ere. Adibidez, Irusoko

⁴ J. Garmendia (ed. 2007). *Artesanía Vasca*. Donostia: Eusko Ikaskuntza, 158.orr.



Gaur egun Urdeñolan ikus daitezkeen aztarnen interpretazioa.

mea, Bizkotx-etik ekarritako 200 gurdi mea (Berastegi) edota Leitzak Gorritin eta Uitzin zituen mineralen eskubidea ere izan ohi zituen Urtok. Beraz, lehengaiak ziurtatuta zituen, eta, ondorioz, burdinola indartsuenetakoa zen.

- **Urbietta:** egun Urbietta baserriak ditu burdinola izan zenaren izena eta kokapena. 1444ean, Dominga Astiz Leiza agertzen da olaren jabe; 1535ean, berriz, Joanes Urbietta eta Martin Arribillaga dira jabeak; eta 1556an, Juan Lopez Urbietta. Ziurrenik, XVII. mendeko geldirik zegoen.
- **Beriñas:** Ezkurrako mugetan kokatua. Bazen Berastegin ere izen bereko burdinola bat. Hainbat dokumentutan ola hau Oiartzungo Petri Makuso-rena agertzen da, eta deseginda zegoela, Juan Martinez Ezkurrak -Ezkurrako jauregiko nagusiak- Leitzako herriari berriz eraikitzen uzteko eskatu zion. 1575ean, olatxoak eraiki zuten burdinolaren ondoan, eta, 1590ean, bertan,

burdinazko arku eta iltzeak eraikitzen zizutela badakigu.

- **Eskibar/Esquibar:** hain ezaguna dugun Ixkibarko parajearen zegoen ola. 1372an, jada, dokumentatua dago burdinola, eta, XV. mendean, burdin mea Anizlarreatik lortzen zuen. 1410ean, esaterako, Orreagako kolegiatari 7 florin ordaindu behar izaten zizkion meak bere lurretatik ateratzeagatik, eta, 1421ean, Sarasaingo burdinolarekin auzia izan zuen Eskutsuloko meak zirela-eta. Dokumentazioan bi Eskibar agertzen dira: *Esquibar de Yuso* (behekoa) eta *Esquibar de Suso* (goikoa). Ez bada ziurra ere biak martxan egon zirela, artxiboan ageri da 1428an, Iruñeko bi merkatarik 280 florineko mailegua egin zioten hainbat olagizoni *Esquibar de Yuso* ola eraiki zezaten. Eskibarri buruzko azken dokumentua 1538-41 bitartekoa da, ondoren ez da gehiago aipatzen.
- **Sarasain:** ... a los dictos Martin et Johana avemos dado et otorgado, da-

mos et otorgamos por las presente licencia, autoritat et poder aplido de edificar et fazer de nuevo una ferreria en el dicto termino de Sarassayn [...] et non perjudicando a otras ferrerías ayan et puedan fazer mena, carbón, leyña et agoa en nuestros dictos montes et yermos... (1417an, Karlos erregeak Martin eta Joana tolosarrei emandako baimena. Iturria: AGN, Co_Documentos, Caj.115, N.15, 3).

Badirudi, 1550 inguruan Martin Perez Segura merkatarik donostiarrak berriz eraiki zuela burdinola, eta, gerora, Fermin Arano, goizuetarra eta Leitzako abadea, izan zen honen jabea (Goizuetako Olazarra burdinola berea zuen, eta baita Iberoren erdia ere). Interesgarria da nola 1602an elizgizon honen testamentuan Sarasaingo burdinola nagusia, bi burdinola txiki, errota eta San Fermi eskaintako ermita inbentariatu zituzten.

- **Eleuna:** 1512an, Juan III.a eta Katalina Nafarroako errege-erreginek



Iberoko konplexu industrialaren eraldaketa aireko 4 argazkitatik: 1929-34, 1966-71, 2017, 2019. Iturria: idena.navarra.es.

Martin Isasti Errenteriakoari Eleuna izena zuen burdinola berreraikitze baimena eman zioten. Eta, horretarako, 10 urtez barkatuko zizkioten zergak. Egun, Elungo inguruan olaren kanalak bakarrik irauten du, harria zulaturik eraikia baitago.

- **Urdiñola:** Eleuna eta Iberokoarekin batera Goizuetatik hurbilen dagoena da, eta jabe eta langile asko bertakoak izan zituen. Leitzako artxibategian 1505eko dokumentu eder batean aipatzen dute. Dokumentuan, beste gauza askoren artean, Agerrola burdinolari tokatzen zitzaizkion mugak eta lurak Urdiñolakoari eman zizkioten, ziurrenik aurrekoa jada geldirik zegoelako.
- **Ibero:** 1389an, Karlos erregeak baimena eman zion Migel Ezker Lesakari burdinola bat berritik egiteko

Iberoko parajea, 12 librako lezta ordainduz urtero. Iberoko olak, Urdiñola eta Eleunakoak bezala, Leitzako eta Anizlarreako lurak erabiltzen zituen, eta, ondorioz, Orreagako kolegiatari urtero kopuru zehatz bat ordaindu beharra zion. Badirudi, Iberoko dorrea XIV. mendean erdialdean eraiki zutela, defentsa zereginetarako, eta burdinola ere garai hartakoa zela pentsa dezakegu. XIX. mendera arte ekotzi zuen burdinolak, baina, 1725ean, Juan Domingo Larreta haren jabea zela, olak 20 urte baino gehiago geldirik zeramatzan. Egoera honetan, Leitzako herria Iberori tokatzen zitzaizkion mendiak ustiatzen saiatu zen; baina, azkenean, Larreta berak konpondu zuen ola, eta mendien eskubidea berreskuratu.

- **Alzateko ola txikia:** 1575an eraiki zuten Alzateko olatxoak Amazabalen (Alzateko Herria dagoen inguruan). Domingo Elizegik, merkatari tolosarrak, aurreratu zion horretarako dirua Martin Lezaetari, eta honek Domingo Amigorenari eman zion errentan. Burdina Errezumatik erosten zuten, arkuak eta iltzeak egiteko batez ere.
- **Agerrola:** 1412an Agerrolako burdinola, Astarita bezala ere ezaguna, Matxin eta Mitxel Gerrak eta Martin Sanzek erosi zuten. Esan dugunez, 1505erako geldirik zegoen.
- **La Medrana, Epeleta, Olasaun...**

BAINA BURDINOLAK BESTERIK EZ?

Burdinaren produkzioarako ezinbestekoak ziren lehengaiak: ura, egurrikatza

eta burdin mea. Leitzako burdinolek, XVIII. mendea arte bertako mea usiatu zuten. Badirudi, Gorritiko meak garrantzia handia izan zuela, eta, horren testigu, dozenaka dokumentu ditugu:

...Martin de Eguzquiza, vecino de este dicho lugar (Gorriti) y dueño de la casa llamada Echeverría y de la otra Juan Baptista de Noguera, vecino de la villa de Leiza y dueño de la herrería llamada Rezuma. Y ambas las dichas partes, en razón de batir unas meneras para sacar metal de fierro en la jurisdicción de la dicha casa de Echeverría o cerca de ella [...] baxar las dichas meneras en los dichos veinte y quatro estados de fondo... (1698ko akordioa Gorritiko mina bat ustiatzeko. Iturria: AGN, 180942 prozesua).

Leitzako inguruetan lantzen ziren meategiak ustiapen txikikoak izan ohi ziren; batzuk, galerien bitartez ustiatuak, besteak, aire zabaleko tekniken bitartez. Horien artean, gehien azaltzen diren izenak Irusoko minak, Biuztaingoak eta Arraingoak ziren. Badira, ordea, beste hainbat esplotazio txikiren aipamenak ere: Pagobil, Iberomalkor, Urrola, Bagorrin, eta abar. XVIII. mendean, Bizkotzeko eta Uitziko mea ezinbestekoa izan zen (Arrieta), eta, jada, Somorrostrokoa ere ekartzen hasiak ziren -Euskal Herriko burdin mea ustiapen handiena eta aberatsena-.

Egurrikatza, bestalde, hain ezaguna dugun txondorren bidez lortzen zuten, izan ere, labeetan tenperatura

altuak lortzeko beharrezkoa zen. Basoaren ustiapena izan zen, ziurrenik, gure inguruetako konturik konplexuena eta arazo gehien sortu zituen: bai burdinolen artean, baita kontzejuaren eta burdinolen artean ere. Herriarekin egindako hitzarmenen bitartez, burdinola bakoitzari muga zehatzak esleitzen zizkieten, egurra eta ikatza egiteko eta soroez gozatzeko. Hitzarmen hauetan, ordea, salbuespenak asko ziren: sarobeen erabilera, zein zuhaitz moztu eta zein ez, noiz utzi aziendak libre eta abar. Eta, ondorioz, arazoak ere asko izaten ziren, interes eta diru asko baitzegoen tartean. Ohikoa zen, gainera, herriko ordezkariak kanpoko burdinolei ere baso-salmentak egitea, Plazaolakoari, esaterako; eta baita ontziolen ere.

Esan dezakegu, hortaz, burdinaren ekoizpenak eta honen inguruko jarduerak oso ikerketa-eremu zabal eta konplexua osatzen duela, eta gure herrian izugarritzko garrantzia izan zuela. Ez bakarrik burdina produzitzen zutelako, baizik eta, hainbat eta hainbat zirelako bertan jarduten zuten herriar eta kanpotarrak: merkatariak, burdinolek langileak, ikazkinak, meategietako langileak eta, nola ez, garraiolariak.

Burdinaren produkzioak ingurunea ustiatzeko modua arautu zuen mendeetan zehar, eta honen aztarnak -nahiz dokumentalak, materialak zein ahozkoak-, gure inguruan ditugu oraindik ere, eta zaindu beharrekoak dira.

Malen Lizarraga Olano

Hiztegitxoak:

AGOA: burdin mea egurrikatzarekin labe baxuetan sartzen zutenean, barrenean gertatzen zen eraldaketa prozesutik honakoak bereizten ziren: batetik, burdina bola oretsu moduan (urtu gabea); eta, bestetik, zepa (urtua). Lehenengo hori zen *agoa*, kolpatu eta forma ematen zitzaiona.

ANTEPARA: olari itsatsita zegoen egitura zen, depositu modukoa. Kanaleko ura hara bideratzen zen, eta handik sortzen ziren ur saltoek gurpilak mugiaraziko zituzten. Zurezko deposituak izan ohi ziren hasiera batean, gerora harrizkoak.

ARRAGOA: edo kiskaltzeko labeak. Lantegiaren inguruan kokatu ohi ziren labeak ziren, eta meari lehenengo erreketatik egiteko erabiltzen ziren.

HAUSPOAK: labearen barrenaldea berotzeko eta tenperatura altuetara iristeko beharrezkoak ziren. Normalean bi hauspo paratzen ziren, eta txandaka lan egiten zuten. Dokumentazioan *barquines* bezala agertzen dira, eta XVIII. mendearen lehenengo erdian, adibidez, Andoaingo Juan Bautista Argotek egin eta konpontzen zituen.

INGUDEA: burdinazko blokea, oinarri baten gainean finkatzen zena eta mailuaren azpian kokatzen zutena. Agoa ingudearen gainean jartzen da mailuaz kolpatzeko.

LEZTA: burdinolek haien produkzioagatik zenbait zerga ordaindu beharra izaten zuten: *alcabala*, *quartela* eta *lezta*. Lehenengoa, hiri, herri eta tokietan egindako burdinagatik ordaindu beharra zuten; bigarrena, kondestableari; eta azkena, erregeari ordaindu beharrezkoa zen, merindadeko zerga biltzaileak (*el recibidor*) jasotzen zuena. 1535ean, ordea, hainbat liskarren ondoren, Nafarroako erregeordeak eta burdinolek arduradunek hitzarmen bat sinatu zuten: hemendik aurrera oletan egindako burdin kintal bakoitzeko 6 marabedi ordaindu beharko zituzten bakarrik, gainontzeko zergak alde batera utzita.

TAULAK: mugako tokietan egoten ziren bidesari edo ordainleku modukoak ziren, eta bertatik igaro beharra zuen erreinura sartu edo erreinutik ateratzen zen merkantzia orok. Postu hauek ere errentan hartzen ziren, eta bertako langileak izaten ziren zergak kobratzen zituztenak (*tablajeros*).

ZEPA: sinpleki esanda, burdinaren lankeetan sortzen den hondakina (*Escoria*, gaztelera).

Web-orri eta gertuko iturri interesgarriak:

- Leitzaran bailarako burdinolen inguruko informazioa: <https://www.leitzaran.net/ferrerias/>
- Antton Mari Mitxelenaren lana Goizuetatik 8km-tara dauden burdinolen inguruan: http://www.iparmank.eus/fitxategiak/dokumentuak/argitalpenak/xapo_19.pdf
- Burdinolen funtzionamendua eta historia kontsultatzeko: <http://www.arkeolan.com/ferrerias-gipuzkoa/index.php?lng=eu>

...tologia, Enpresen Administrazioa, Psikologia, Erizaintza, Gizarte Hezkuntza, Zuzenbidea, Kazetaritza, Fisioterapia, Gizarte Lanak, Fisika, Arte ederrak, Kirol magisteritza, Hezikuntza eta Pedagogia Sistemikoa, Ikus-entzurikotasuna eta Soinua, Medikuntza, Ortodontia, Hezikuntza Premietan nahiz Hezikuntza Berria, Zientzia Politikoak...

Institutuan bukatu ondoren, zer?



Bizitza erabakiz jositako ibilbide bat da. Hamaika erabaki hartu behar izaten ditugu, txikiak nahiz handiak. Erabaki “handi” horietako batek, askotan behintzat, ikasketekin zerikusia dauka. Zer ikasi, ondoren? Ikasleak institutuan daudenean egokitzen zaien erabakietako bat da eta, gauzak hasieratik erabat argi dituztenen kasuan izan ezik, buruhauste dezente sortzen duen kontua da.

Eta zein da Amazabal Institutuko ikasleek egiten duten hautua? Institutua utzita, zer da ikasten dutena? Galdera horren erantzuna ezagutzeko Institutuan bertan galdetu dugu, eta horrela osatu dugu idatzi honetan aurkeztuko dizuegun argazkitxo hau. 2014-2015 eta 2019-2020 ikasturteetan Institutua utzi zuten ikasleek hautatutako ikasketak zein diren jaso dugu, ikasle horien intereseak, gustuek edo beharrek nondik

jotzen zuten ikusten eta ulertzen laguntzeko.

Badira, jakina, ikasketa batekin hasi eta ondoren utzi edo beste batera pasa direnak, baina uste dugu taula honek ongi samar erakutsiko duela gure ikasleek zer bide hartu duten eta nondik jo duten.

Goi-mailako zikloen kasuan, batzuetan zehazteko modua izan dugu eta zikloaren gaia zein den esan, eta beste zenbaitetan goi-mailako zikloa dela besterik ezin izan da zehaztu. Ingeniaritzen kasuen ere, denak multzo berean sartu ditugu.


Honatx, datuak:

IKASKETAK	ZENBAT IKASLE					
	14-15	15-16	16-17	17-18	18-19	19-20
Goi-mailako zikloa	4	10	6	6	4	17
Ingeniaritza	2	3	4	5	8	3
Irakasle Ikasketak	2	1	4	1	5	2
Psikologia	1	1	1		1	
Enpresen Administrazioa eta Zuzendaritza		2		2		3
Erizaintza	1	1	1			2
Gizarte Hezkuntza	1	1		1		
Zuzenbidea	1		1	1		1
Kimika	1			2		
Kazetaritza			1	1	1	
Fisioterapia	1		1			
Gizarte Langintza		1	1			
Biokimika		1		1		
Fisika		1		1		
Lan-harremanak eta Giza Baliabideak		1				1
Kirol magisteritza					2	
Musikako goi mailako ikasketak	1					1
Lehen Hezkuntza eta Pedagogia Sistemikoa	1					
Ikus-entzunezko Komunikazioa eta Soinua	1					
Medikuntza	1					
Ortodontzia	1					
Pedagogia eta Hezkuntza Premietan nahiz Laguntza Goiztiarra	1					
Soziologia	1					
Zientzia Politikoak	1					
Haur Hezkuntza	1					
Jarduera Fisikoaren eta Kirolaren Zientziak	1					
Haur Hezkuntza eta Psikopedagogia	1					
Farmazia eta Nutrizioa		1				
Mekanizazioa		1				
Turismoa		1				
Filologia Hispanikoa			1			1
Logopedia			1			1
Ingeles Filologia			1			1
Kazetaritza eta Zientzia Politikoak			1			
Fisioterapia eta Irakasle Ikasketak			1			
Arte ederrak				1		
Filologia Klasikoa				1		
Itzulpengintza				1		1
Historia				1		1
Frantses Filologia				1		
Arkitektura					1	1
Biologia					1	
Ikus-entzunezko Komunikazioa					1	
Arkeologia					1	
Terapia Okupazionala					1	
Euskal filologia						1
Musikologia-psikologia						1
Zinematografia eta ikus-entzunezko artea						1
Matematika konputazionala						1
Geografia						1
Bideo jokoaren diseinu eta produkzioa						1
Gizarte integrazioa						1

Nerea Zabaleta

Ikertzaile leitzarra Bostonen

«Argi neukan
ikerketan
jarraitu eta
ikerketan
egin nahi
nuela lana»



Nerea Zabaleta leitzarra 1991ean jaio zen. Leitzan egin zuen derri-gorrezko hezkuntza eta batxilergoa eta, ondoren, Nafarroako Unibertsitatean egin zituen Biokimikako ikasketak, lau urtez. 2013an bukatu eta masterreko proiektua eta doktorego-tesia unibertsitate horri lotutako CIMAN (Centro de Investigación Médica Aplicada) egin zituen, Gloria Gonzalez Aseginolazaren laborategian eta haren zuzendaritzapean.

Bere formazioa Parisen eta New Yorken osatu zituen Nereak, bakoitzean

hiruna hilabete eginda, eta egonaldi horien bitartez nazioarteko doktoregoa egiteko aukera ere lortu zuen.

Bere tesiaren laburpena egiten duen lan batengatik, Terapia genikoko eta zelularreko Europako Elkarteak ikertzaile gazteari emandako saria eskuratu zuen.

Gaur egun doktoretza ondoko ikaslea da Harvardeko Unibertsitatean, eta bere laborategia unibertsitate horrekin elkartuta dagoen ospitale batean dago, Mass Eye and Ear-en hain zuzen ere.

Nerearen jardueraren % 100 ikerketa da, betiere terapia genikoaren inguruan.

■ **Bostonen bizi den eta ikerketan lanean ari den leitzarra zara. Zure bizitzak norabide jakin bat hartu du, beraz. Hori gertatu baino lehen sumatzen al zenuen horrela izanen zela?**

Ez dakit noiz konturatu nintzen kanpora joan nahi nuela, baina argi neukan ikerketan jarraitu eta ikerketan egin nahi nuela lana. Uste dut lagundu zidala doktoretzan zehar kanpora joateak, eta zen-



Laborategian txertoa ikertzen.

bat ate irekitzen dizkizun ikusteak. Zure konfort-gune horretatik ateratzen zaitu. Kanpora joan, beste laborategi batera, eta aurreneko egunean esaten duzu: “ze txikia naizen, ez dakit deus, ze jende inteligentea dagoen hemen...”. Eta konturatzen zara aste batzuetan harapatzen dituzula, eta eguneratzen zarelara, pila bat ikasten duzula... Uste dut hor jakin nuela kanpora joan nahi nuela, eta nire formakuntzarekin segitu nahi nuela, orain loturarik ez dudala, familia bat, edo gurasoak ongi daudela...

■ **Eta zergatik Boston?**

Nire doktoretzako zuzendaria izan zen egiatan konfiantza eman zidana, pausu bat aurrera emateko. Doktoretzako momentu batean esan zidan: “Nerea, zer egin nahi duzu? Segitu nahi duzu? Nik ikusten zaitut... Ni AEBetara joanen nintzateke, diru gehiago dago, ikerketa aukera gehiago daude”. Ni seguru nengoen baietz, etorri nahi nuela, eta berak proposatu zidan laborategi hau. Hemen

laborategi batean nago, nire zuzendaria Luk H. Vandenberghe da, nire arloan izan handia daukan pertsona bat, terapia genikoaren arloan lan asko egin duena, gure ikerketa arloa hain zuzen, eta oso laborategi ona da. Talde dezente handia da. Gloriaren ustez niretzat egokia zen, proposatu zidan, eta tira, hemen nago.

■ **Biokimika ikasi zenuen. Unibertsitateko aukera oso zabala da, baina horixe hautatu zenuen. Zer dela eta?**

Kasualitate pilaketa bat izan zen. Nik medikuntza egin nahi nuen, baina batxilergoko 2. mailan ez nuen biologia eman eta horrek medikuntzako aukera moztzen zidan, sekulako trauma izan zen. Ez nintzen medikuntzan sartu baina beste ikasketa batzuk egiteko aukera eman zidaten. Eta ez dakit zergatik baina amak esan zidan: idatzi badaezpada unibertsitatera eta esan biokimikan plaza bat gordetzeko. Hala egin nuen, bai bainekien medikuntzan ez nintzela sartuko. Plana biokimikan hastea zen,

eta bigarren urtean baneukan aukera unibertsitate horretan bertan medikuntzara pasatzeko. Baina biokimika hasi nuen eta pila bat gustatu zitzaidan, laborategia asko gustatu zitzaidan eta esan nuen: “hemen geldituko naiz”. Eta horrelaxe, nire pasioa nahi gabe sortu zen, nik uste.

■ **Tesia, berriz, gaitz hepatico arraro baten inguruan egin zenuen: hiperoxaluria primaria, herentzia genetikoak transmititzen den gaixotasuna da. Zerorrek esana da gaitz arraro horiek ez direla hain arraroak, populazioaren % 4ak duelako horietakoren bat, baina ikusezinak direla. Zerk bultzatuta erabaki zenuen tesia horren inguruan egitea?**

Egia esan, Espainian behintzat, normalean ikerketa egiten duzu finantziazioa duzun gaitetan. Nire karrera beti egon da lotuta guk erabiltzen dugun tresna terapeutikoa bati, bektore biral bati hain zuzen ere. Tresna terapeutiko



San Ferminak ospatzen Bostoneko Cafe Pamplona kafetegian bikotekidearekin.

bat da, terapia genikoa egiteko. Egin dezakezuna da, esan dezagun, tratamendu desberdinak sortu, gaitz desberdinetarako tresna bera erabiliz. Gloriaren laborategian hori egiten zen, CIMAn, eta berak proposatu zidan. Finantziario zeukan proiektu horretarako, baietz esan nion, eta horrela hasi ginen.

■ **Terapia genikoa aipatu duzu. Bi hitzetan azalduko diguzu terapia genikoa zer den? Eta esanen zenuke genetika zergatik den interesgarria?**

Genetika nire ustez oso garrantzitsua da, eta oso interesgarria, ebidentea delako. Hasteko, denak desberdinak gara, eta hori genetikatik heldu zaigu. Genetika ikasteak edo ikertzeak eraman dezake ulertzera zergatik dauzkagun gaitxotasunak eta zergatik sufritzen ditugun desberdin. Ez baita gauza bera nik gripea edukitzea edo zuk edukitzea. Genetikak horretan pisu asko dauka. Gaitxotasunak normalean faktore askoren ondorioz gertatzen dira. Bat ingurua da: non bizi zaren, zer ur mota edaten duzun, zer irradiazio jasotzen duzun... Beste faktore bat izan daiteke zure bizitza-ohitu-

«Genetika oso interesgarria da horregatik guztiagatik eta, baita ere, medikuntza pertsonalizatu batera eramaten zaituelako»

rak: gimnasia egiten duzun, alkohola edaten duzun..., gauza asko. Eta faktore oso-osoa handi bat genetika da. Eta badakigu genetikak asko eragiten duela edozein gaitxotasunetan. Baita birus edo bakterio batek infektatzen zaituenean ere, zure erantzuna desberdina da genetikoki oso desberdinak garelako. Nire ustez, beraz, genetika oso interesgarria da horregatik guztiagatik eta, baita ere, eramaten zaituelako, esan dezagun, me-

dikuntza pertsonalizatu batera. Nerea Zabaletak genetika hau dauka eta badakigu erantzun behar diola tratamendu honi modu honetan edo beste honetan, orduan hobe da beste tratamendu bat erabiltzea, adibidez. Horrek guztiak eraman behar gaitu etorkizuneko medikuntza batera, askoz ere medikuntza finduago batera.

■ **Esaten duzun horren guztiaren atzean badago, bestalde, eztabaida filosofikoa edo etikoa. Noraino joan daiteke genetikarekin, zertarako erabili? Zuek ere aritzen zarete gogoeta eta eztabaida horietan, edo zuena oso ariketa praktikoa da?**

Terapia genikoa da genetika tratamendu gisa erabiltzea. Bai informazio genetikoa gehitzea, nolabait kanpotik informazio genetikoa berri bat aportatzea, DNA puska bat azken finean, edo zure gorputzean daukazun informazio genetikoa eraldatzea. Eta hor sartzen da, nik uste, gure gatazka etikoa.

Pertsona baten informazio genetikoa aldatzen ari zara, eta hor gatazka etikoa sortu daiteke. Izan ere, esku txarretan erortzen bada, txarra den zerbait egin dezake. Baina egia da ez dela hain erraza eta, nik dakidala behinik-behin, ez dago hainbeste ikerketa. Guretzat, adibidez, ez da interesgarria ikertzea nola aldatu gene bat zure semeak ile argia edo iluna izan dezan. Ez gara iristen eztabaida etiko horietara inor ez delako hori egiten ari.

Baina bai, egia da, azken urteotan edizio genikoa izeneko teknika batek, CRISPR/Cas izenekoak, boom handi bat izan du, eta edizioa editatzea da: zuk pertsona baten zelulan zerbait espezifikoki sartzeari, haren genetika aldatzeko. Eta hori jada ez da kanpoko zerbait aportatzea, baizik eta barrukoa aldatzea, eta gero ez dago atzera egiterik. Ezin duzu berriz moldatu.

Baina nire ustez iritsi behar da puntu bat ulertu behar duguna oso ongi teknika nolakoa den, zer muga dauzkan, eta

bukatu behar dugu hori aplikatzen beste edozein terapia bezala, ongi ulertuta zer pasatzen den, nola erabili... Erregulazio oso handia dago horren atzetik.

■ **Gaur egun ikerketan ari zara. Ordu asko eta asko ikertzen, eta emaitza ez da beti berehalakoa izanen, gertatuko da batzuetan okerreko bidea hartu dela eta berriz atzera egin behar dela... Zer behar du ikertzaile batek kanpotik, eta zer beretik?**

Kanpotik, nik behar izan dudana, eta horri esker ailegatu naiz ailegatu naizen lekura, norbaiten babesa eta laguntza da. Oso beharrezkoa da. Hemen asko erabiltzen da mentore hitza, eta mentore bat edukitzea oso garrantzitsua da. Laguntzen dizun norbait, zure ikerketako aurreneko urteetan eskutik eramaten zaituena, ez baita erreza.

Nik zorte oso handia eduki dut, eduki ditudan bi mentoreek asko lagundu didate, eta biek segitzen dute laguntzen: bat hemen dago, eta bestea nire doktoretzako zuzendaria da. Noski, mentore on bat baldin badaukazu, zure ikerketa ongi zuzendua edukiko duzu, zorte pixka batekin nahikoa finantziario hori aurrera eramateko, eta, horretaz gain, askotan mentore horrek harreman-sare bat ematen dizu eta hori ere oso beharrezkoa da.

Nik esanen nuke, beraz, mentore on bat behar duzula, harreman-sare on bat, finantziarioa, noski, eta baita ikerketa giroa ere.

Eta badago azken aldian asko ateratzen ari den beste kontu bat, eta oso garrantzitsua da: emakumeok, zientzian, ez daukagu hain erraza. Tristeza da esatea baina egia da: emakume batentzat gora igotzea askotan zailagoa da. Askotan ez zaituztelako kontuan edukitzen berdin, gizon bat izango bazina bezala.

Beti esaten duguna: mikromatxismoak daude, gauza txikiak, oso txikiak. Agian ez zara konturatzen, baina horren inguruan pixka bat irakurtzen hasten zarenean, badaude gauza txiki batzuk



Bryce Canyon parkean nire lagun onenekin.

«Zientzialari on bat izateko pasioa eta pazientzia behar dira eta, horretaz gain, enpatia»

eta esaten duzu: “hori ez da berdintasuna, emakumea kaltetzen ari zara gauza txiki horiekin”. Niri pertsonalki gutxitan gertatu zait, baina egoerak ikusi ditut, eta badakit goraka noan heinean joanen naizela ikusten egoera gehiago eta gehiago, eta sufritzen ere bai, zoritxarrez.

Adibidez, emakume zientzialari bat izanda, aurrera jarraitu, karrera bat eduki eta ikertzaile printzipala izan nahi duenak, emakume bezala norbaitek laguntzea beharko du. Nire kasuan emakume bat izan zen. Laguntzea eta esatea: “eskua botako dizut goitik eta lagunduko dizut igotzen”. Askotan bakarrik igotzea oso zaila baita. Hori oso garrantzitsua da eta zure mentoreek ematen dizute.

Hori kanpotik. Eta barrutik, nire ustez ikertzaileak behar duen aurreneko gauza pasioa da. Gustatu egin beharra zaizu. Asko. Izan ere, ez bazaizu gustatzen, bizi gogorra da, ordu asko dira. Porrot asko dago. Gero ikasten duzu gauzak ez zaizkizula atera behar aurrenekoan, eta mila ordu sartu dituzu eta ez da atera, baina hori da dagoena. Bizitza horrelakoa da, zientzia horrelakoa da. Errepikatatu egin behar duzu, eta listo. Eta ohitu egiten zara.

Pasioa eta pazientzia behar dira, beraz. Horretaz gain, nire ustez zientzialari on bat izateko, enpatia ere behar da, beste pertsona batzuekin nola jokatu jakin. Oso garrantzitsua da, bakarrik lana egitea ezinezkoa delako, ez duzu deus ere lortzen, eta lortzen baduzu ailegatuko zara honaino. Oso garrantzitsua da pertsonekin nola lan egin jakitea. Nola eraman talde bat, nola lortu jendea pozik egotea. Batzuetan lan gogorra da eta askotan ez da erraza aitortza lortzea. Garrantzitsua da jakitea pertsonak nola motibatu zure inguruan, nola egin haiei ere zientzia gustatzea.

Eta zure izaerak ere lagundu egin behar dizu. Segurtasuna puntu bat behar duzu, eta zure buruarengan egiatan konfiantza izan, eta hori askotan zure men-



Oporretan Yosemite parkean nire Bostoneko familia txikiarekin.

toretik heldu da, zure mentoreak balidatu egin behar zaitu, puntu bateraino, segurtasun hori emateko.

■ **Bostonen bizi den leitzarra zara. Leitzarra sentitzen jarraituko duzula pentsatzen dugu baina, sentimendu hori ahultzen da? Aldatzen da? Beste modu batera edo beste indar batekin bizitzen da? Eta nola ikusten da Leitza handik?**

Nik bi urte daramat hemen, 27 urterekin etorri nintzen. Kanpora ateratzen zarenean, eta batez ere hemengoa bezalako giro batean bizi zarenean, munduko leku guztietako jendea daukazu, kultura oso desberdinak eta pentsaera oso desberdinak, eta bizi zara zurea ez den kultura batean sartua. Alde batetik gogorra da, eta ni ez naiz hemen etxean bezala sentitzen. Oso eroso sentitzen naiz, baina ez nago etxean. Leitza sentitzen naiz etxean. Zure aterpea dauka-

zu, nire leku segurua Leitza da, sustraiak hor dauzkat, leitzarra sentitzen naiz.

Baina egia da, momentu batean, pixka bat munduko hiritar sentitzen zarela. Izan ere, konturatzen zara zure kultura, zure familia, zure lagunak, zure leku segurua, zure konfort-gunea, ez daudela hemen, han daude, baina hemen ere zoriontsua izan zaitezkeela, eta lagunak egin. Eta egia da asko lagundu didala pertsonalki eboluzionatzen, jende ezberdina ezagutzeak eta hemen bizitzeak. Bostonen konturatu naiz uste nuena baino askoz ere indartsuagoa naizela, askoz ere. Balio dizu indartsuago egiteko edo konturatzeko nola zaren gai zuk bakarrik gauza asko aurrera eramateko. Baina, aldi berean, indar hori heldu zaizu zure sustraietatik. Nik badakit jendea hor daukadala, nik badakit Leitza hor daukadala. Leitza desagertuko balitz, segur aski ez zen hain erraza izango niretzat, bai baitakizu beti bueltatu zaitezkeela,

beti edukiko duzula hor zure etxea. Niretzat hori bitala da.

■ **Eta Leitzarekin duzun harremanari nola eusten diozu? Maiztasun batekin etortzen zara?**

Konturatzen zara maite duzun jendea ez duzula egunero ikusi beharrik erlazio bat mantentzeko. Nik nire lagunekin nahikoa maiz hitz egiten dut, bideo-dei bidez, noski. Familiarekin, nire gurasoekin eta ahizparekin, astero hitz egiten dut. Noski, bertatik bertara askoz erlazio aberatsagoa edukitzen duzu, baina ez da hain erraza erlazioak galtzea distantziaren ondorioz. Mantendu nahi badituzu, mantendu ditzakezu.

■ **Une honetan zertan ari zara lanean eta non ikusten duzu zeure burua datozen urteetan?**

Nire karrera beti egon da erreminta terapeutiko honi, bektore biral konkre-

tu bati, lotua. Nire doktoretzan erabili nuen bektore biral hori gaixotasun arraro batentzat tratamendua garatzeko. Ondoren, eman nahi nuen pausua zen maila oinarrizkoago batean ikertzea bektore biral horrek nola funtzionatzen duen.

Orduan, guk egiten duguna da geneak edo informazio genetikoak erabili gaixotasunak tratatzeko. Gaixotasun arraro dezente genetikoak dira, eta gaixotasun genetiko horien artean asko gene bakar baten ondorioz garatzen dira. Adibiderik errazena, eta hori ez da gaixotasun arraroa kontsideratzen, hemofilia da. Hemofilia duten gaixoak ez dira gai ongi koagulatzeke, eta hori gertatzen da koagulazio faktore bat falta zaielako. Zergatik falta zaie? Koagulazio faktore hori sortzen duen genea mutatua daukatelako eta ez duelako ongi funtzionatzen. Ondorioz, ez dute koagulatzen. Orduan guk egin behar duguna da gaixotasun hori tratatzeko gene ona edo gene zuzena eraman gaixo horren zeluletara. Ordezkatze moduko bat. Zure geneak ez du ongi funtzionatzen, eta nik beste gene funtzional bat sartzen dizut zelulan.

Guk horretarako erabiltzen ditugunak dira bektore biralak. Zergatik? Birusak naturan adituak direlako informazio genetikoak pertsona baten zeluletara eramaten. Guk egiten duguna da birus horren gene biralak kendu birusetik, eta birusaren barrenean sartu guri interesatzen zaigun genea. Gure kasuan birus adenoasoziatuak dira, oso birus txikia, ez du gaixotasunik sortzen gizakietan, eta oso segurua da. Adibidez, hemofilian koagulazio faktore horren genea izango litzateke. Gure tratamendua kanpotik birus bat da, baina barrenean zure terapia dauka, gene hori hain zuzen ere. Eta birus horren kanpoko aldeak birus horri gaitasuna ematen dio pazientearen zelulara joan, itsatsi, sartu eta informazio genetiko hori, zelularen nukleoan, uzteko.

Nire asmoa hemen (Bostonen) zen ulertzea bektore biral horiek nola sartzen



Nantucket Irlan (Massachusetts) egun pasa.

«Leitzako ikasleei esanen nieke, hasteko, gustatzen zaiena egiteko. Eta beti, egiten duten horretan, beren pasio guztia jartzeko»

diren zelulan. Bektore horren kanpoaldeko zer partek egiten duen lana zelulara sartzeko, eta nola definitzen den zein organotara joan behar duen, adibidez. Nire asmoa zen hobeki ulertzea bektore biral horiek nola funtzionatzen duten, eta hori ulertu ondoren, eraldatzea. Bektore birala aldatzea, gibelerako espezifikagoa izan dadin, adibidez, edo espezifikoki gibelera ez joateko. Hori da egiten ari naizena.


Eta etorkizun batean? Zaila da jakitea. Nik beti esaten dut lehentasun kontua dela, zeri ematen diozun garrantzi handiagoa. Orain niretzat garrantzitsuena nire karrera izango litzateke. Orduan ni

ongi nago hemen Bostonen, etxetik 6.000 kilometrotara. Bere alde txarrak dauzka, noski, baina gustura nago eta hemen han baino askoz aukera gehiago dauzkat. Beraz, hori da nire lehentasuna. Hemen-dik urte batzuetara agian lehentasuna familiatik bertago egotea izango da edo, nik familia baldin badaukat, non hezi nahi ditudan nire seme-alabak, adibidez. Argi daukat ikerketan segitu nahi dudala, eta hori lortu nahi dudan gauza bat da, baina ez dakit non.

■ Leitzako ikasleei, unibertsitatean hasi behar dutenei, etorkizunean ikertzaile izan litezkeen horiei, zer esanen zenieke?

Nik esanen nieke, hasteko, gustatzen zaiena egiteko. Eta beti, egiten duten horretan, beren pasio guztia jartzeko, azkenean hori baita modu bakarra egia-tan zu zure buruarekin pozik egoteko. Eta ikerketa oso-oso interesgarria dela eta asko aberasten zaituela. Niri asko gustatzen zaidan gauza bat da egunero ikasten duzula zerbait, eta egunero ikusten duzula zein interesgarria den, nire kasuan adibidez, biologia. Eta zer aukera daukazun azkenean zure lanarekin pertsonari laguntzeko. Nik gazteak animatu egingo nituzke. Biologia gustatzen bazaie, nik animatuko nituzke gutxienez aukera kontuan hartzera.

Leitzan bizitzea, pribilegioa euskaraz bizi nahi dugunontzat?



Leitza, arnasmune. Euskaraz egiteko aukera pribilegio izatetik eskubide izatera pasa dadin.

Orioko Karkara aldizkarian Iñigo Fernandezek artikulu bat argitaratu zuen 2019ko abenduan (<https://karkara.eus/aiaorio/1577361406053-gure-pribilegio-eta-ardurak>). Hausnarketa interesgarri bat egin zuen, gurerako ere balio duena, eta merezi du hona ekartzea. Hark emandako ideiak aipatuko ditugu, eta horren inguruko gogoetatxo bat egin:

1.- “Euskaraz bizi nahi dugunontzat, pribilegio handia da Orion edo Aian bizitzea. Pribilegio hitzaren zentzurik onenean: pagotxa, luxua, zortea da edozein saltokitan sartu eta euskaraz egin ahal izatea, edo kalean edonori hasieratik euskaraz lasai hitz egiteko aukera edukitzea, gehien gehienek ulertu egingo dizutelako, eta, ez bada hala, ziurrenik modu onean esango dizutelako mesedez gaztelaniaz egiteko. Aian eta Orion

euskara nagusi delako, hemen euskararen arnasmune garelako. Zorionekoak gu. Hartuko lukete euskaldun askok gure egoera!”

Paragrafo hori berdin-berdin idatzi genezake *Orio edo Aia* jartzen duen tokian *Leitzan* idatzita. Baita beste herri batzuen izenak jarrita ere, noski, baina ez dira hainbeste, Euskal Herri osoa hartuz gero. Euskal Herriko herri gehienetan gauzak ez dira horrela gertatzen, Euskal Herriko herri gehienak ez dira arnasmune, eta oso urruti daude egoera horretatik.

Horregatik esan daiteke euskaraz bizi nahi dugunontzat pribilegioa dela. Nolabait esateko, gutxi batzuek disfrutatu dezakegun egoera delako.

Gaztelaniadun batek, esate baterako, ez luke esanzen pribilegioduna dela Al-


baceteke herri batean gaztelaniaz lasai eta normal egin dezakeelako. Orduan, zein da aldea? Zergatik euskaldunak bai? Bada, bi hizkuntzen egoera oso ezberdina delako: bata hizkuntza normalizatua da, eta bestea ez. Gaztelaniaz bizi nahi duten guztiek gaztelaniaz lasai asko egin dezakete, baina euskaraz bizi nahi duten gehienek ezin dute.

2.- “Azken hiruzpalau hamarkadatan gizarte gaizarte askotan ikaragarri aldatu den arren, Orion eta Aian eutsi egin diogu geure euskalduntasunari. Eremu berriak irabazi ditugu euskararentzat: administrazioan, hezkuntzan, kale paisaian, kultur eskaintzan... Eta ondo samar goaz, baina oro ez da urre, jakina.”

Hori ere, berdin-berdin idatz genezake Leitzari buruz. Herri euskaldunak



Naturak bezala, Leitzan euskarak ere arnasa hartzen du.



Euskararen ezagutzaren mapa. Ilunenak dira udalerrri euskaldunenak.

izaten jarraitzen dugu, eremuak irabazi ditugu, baina dena ez da urre.

3.- “Kezkatzen nau, batez ere, gure herrian euskaraz normal, natural bizi ahal izateak ez ote gaituen gehiegi lasaitzen, laxatzen, anestesiatzen. Ez ote garen burbuila batean bizi, euskaldun askok eta askok –gehien-gehienek!– euskaraz bizitzeko dituzten muga eta eragozpenekiko sorgor edo ezaxolati. Ez ote garen sarritan, herrian bertan eta zer esanik ez kanpoan gabiltzanean, azkarregi makurtzen gaztelerara.”

Hirugarren paragrafoan kezka batzuk azaldu ditu Iñigo Fernandezek: normal samar bizi gara euskaraz, natural samar, eta horrek erlaxatu egin gaitu. Ez gara ongi ohartzen beste euskaldun asko, gehienak hain zuzen ere, ezin direla euskaraz gu bezain normal eta natural

aritu. Euskal Herrian euskaraz bizi nahi dutenen artean gehienek ezin dute hori egin. Pentsa, gure herrietan bertan ere ezin da, sarritan gaztelaniara makurtu beharra dugulako. Bada, arnasmuneetatik atera eta dena askoz zailagoa da.

Beste kezka bat ere ageri da testuan: “ez ote garen herrian eta kanpoan errazegi makurtzen gaztelerara”. Hori ere gertatzen da gurean. Herrian askotan, bai, baina kanpora joaten garenean zer esanik ez. Leitzatik atera orduko, Iruñea aldera jotzen dugunean esate baterako, ematen du hizkuntza bertan uzten dugula. Gure artean ari garenean bai, bai-

na Iruñean ezezagunengana jotzen dugunean, erosketak egitean adibidez, nola egiten dugu lehendabiziko hitza? Askotan, bistakoa da, gaztelaniaz.

Egia da, badakigu, probabilitate handiagoa dela, estatistika hutsagatik, gure aurrean dagoen hura erdalduna izateko, euskaraz ez dakiena. Baina euskalduna ere izan daiteke, eta zenbat eta gazteagoa izan orduan eta aukera gehiago.

Ustekabeko asko hartuko ditugu lehendabiziko hitza beti euskaraz eginez gero. Ustekabekoez gainera, euskararen presentzia handituko dugu, euskarari balio praktikoa eman, dendetako ardu-

ARNASA GARA



radunei jende euskalduna kontratatzeko edo langileak euskalduntzeko arrazoiak eman... Eta, zergatik ez, gure hizkuntzaren eta gure eskubideen aldarrikapena eginen dugu, bide batez.


4.- “*Labur esanda: ez dakit behar bezala konturatzen garen arnagune bateko euskaldun gisa ditugun pribilegio eta ardurez. Pribilegioek ardurak ekarri behar bailituzkete, bizitzaren eremu guztietan, ezta? Gizalegezkoa iruditzen zait, erabat, pribilegioak dituenari ardura eskatzea.*”

Pribilegioak aipatzen ditu Fernandezek, baina baita ardurak ere. Eta hala da, euskaldunok, edo euskaraz bizi nahi dugunok behintzat, ardura bat ere badugu. Eta horrek ez du esan nahi euskararen etorkizun osoa herritarren eskuetan dagoela, erakundeek eta instituzioek ere oso ardura handia dutelako. Baina guk ere badugu ardura bat, eta herri euskaldunetan bizi garenok ere bai, eta pentsatu beharko dugu euskara ez dela gure herrira bakarrik mugatu behar. Herritik ere atera dezakegu, eta noranahi eramán gurekin. Ardura da, eta aldi berean eskubidea.

5.- “*Orion eta Aian arnagune izateari eutsi behar diogu noski, baina ez soilik hurrengo oriotar eta aiar belaunaldiei arnagune sendoagoak uzten saiatzeko. Birrikak ez du arnas hartzen beretzat bakarrik, baizik eta gorputz osoa indartzeko. Horregatik, kontzientzia izan behar genuke garrantzitsuak garela, ez soilik hurrengo aiar eta oriotarrentzat, baita euskaraz bizi nahi duten oraingo eta biharko euskal herritar guzti-guztientzat ere.*”

Horixe da, hain zuzen ere, UEMAtik azken urteotan azaldu eta hedatu nahi den ideia nagusietako bat. “Arnagune” kontzeptua hori da, hain zuzen ere: bertan euskarak arnasa hartzen du, eta bertatik euskarari arnasa ematen zaio. Leitura bezalako herriek hori egiten dute, besteak beste, euskarari arnasa eman. Eta hori ezinbestekoa da gure hizkuntzarentzat, ez soilik hemen bertan, baizik eta Euskal Herri osoan ere. Euskararen normalizazioan eta berreskurapean, gure herriek funtzio eta egiteko garrantzitsu bat dute.

6.- “*Non sortuko dira euskarazko hitz, irain eta mota guztietako esamolde jator berriak euskaraz, ez bada arnaguneetan? Non sortuko da euskarazko gazte hizkera? Non sortuko dira bihar telebistan, egunkarietan, musikan, kiroletan, publizitatean, ingeniarietan eta beste hainbat alorretan behar-beharrezkoak ditugun profesional euskaldun*



Arnaguneak, euskararentzat birrikak.

eredugarriak, noiznahi eta nonahi euskaraz jator eta egoki arituko direnak.”

Gure herrietatik kanpo ere, noski, sortu litezke hitzak, irainak, esamolde berriak, gazte hizkera eta gisakoak. Eta gure herrietatik kanpo ere sortu daitezke hedabideetan, musikan, ingeniarietan... ariko diren profesional euskaldun eredugarriak. Horren adibideak baditugu. Baina gure herriotan, arnaguneetan, inon baino errazago sortuko dira horiek guztiak, euskararen erabilera bizi eta indartsu batek errazago sortuko dituelako. Eta euskararen erabilera biziena eta indartsuena horrelako herrietan gertatzen da.

7.- “*Arnaguneetako herritarrok, euskaraz bizi nahi dugunok behintzat, euskaldun ez ezik, euskalzale kontzientzia ere izan behar genuke. Eta euskararentzat, eta gainerako euskaldunentzat, funtzio eder eta garrantzitsua betetzen dugula jakinda, horretan ahalegindu, edonoiz eta edonon.*”

Oso ados gaude horrekin. Bistan da ezin dugula espero euskaldun guztiok hiztun kontzientzia, aktibo eta militanteak izanen direnik. Baina garbi dago euskarak hiztun kontzientzia horiek behar dituela. Eta arnaguneetan bizi garenok, eta euskaraz bizi nahi dugunok, horretaz kontzientzia izan beharko genuke, eta horrela jokatu. Eta ez horretarako agindu moral edo etiko zerutiar bat dagoelako, baizik eta, batez ere, euskara hizkuntza minorizatu delako eta horren premia larria duelako. Besteak beste.

Hauxe da, artikulua bukatzeko, Iñigo Fernandezek azkeneko paragrafoa, ondorio gisa planteatzen duena. Gure gogoeta hau ere, esaldi horrekin berarekin bukatuko dugu:

8.- “*Eskubideak unibertsalizatu omen daitezke; pribilegioak, al-diz, ez. Euskaraz lasai bizi ahal izatea pribilegioa da oraindik, zorritzarekin. Saia gaitezen dagokigun ekarpena egiten, euskaraz bizitzea eskubide arrunta izan dadin, bihar ez bada etzi, Euskal Herri osoan.*”

www.eranafarroa.eus

gurasoentzako baliabide bikaina

0 eta 12 urte arteko haurren bat duzu? Bada, zuretzako moduko tresna duzu www.eranafarroa.eus. Webgune bat da, telefonotik, ordenagailutik edo tabletatik sar zaitezke bertan, eta lagungarri, interesgarri eta entretenigarri irudituko zaizkizun baliabideak, ideiak, proposamenak, aholkuak eta abar aurkituko dituzu.

www.eranafarroa.eus Nafarroako udaletako euskara zerbitzuek sortutako webgunea da, euskaraz ikasten duten 0 eta 12 urte bitarteko haurren gurasoei zuzendua. 2017. urtean abiatu zen, eta helburu argi bat zeukan: gurasoei laguntzea eta tresnak ematea beren seme-alabek euskararekiko duten harremana eta bizipena indartzeko. Euskaraz ikasten dute gure seme-alabek Leitzan, baina ikastetxeko gelatik harago bada go mundu bat, eta ongi etorriko zaizkigu eguneroko bizitzan euskaraz normaltasunez bizitzeko baliabideak, proposamenak, aholkuak eta abar.

Hori da, hain zuzen ere, ERAnafarroak proposatzen eta eskaintzen duena.

Webgunearen egiturari eta edukiari begiratu gero, honakoak dira aurkituko dituzun atal eta eduki nagusiak: etxean; eskolan; eskolaz kanpo; baliabideak; eta agenda.

Lehendabiziko hiru atal horietan (eskolan, etxean eta eskolaz kanpo), hiru eremu horiekin eta euskararekin lotutako makina bat artikulua aurkituko dituzu. Euskara dakitenentzako artikulua, edo euskara ikasten ari direnentzako, hezkuntzako maila ezberdinekin lotutakoak, eskolaz kanpo egin daitezkeen hainbat jardueren ingurukoak... Artikulu interesgarriak eta ongi landuak, mamitsuak baina aldi berean irakurtzeko errazak eta arinak, ideia eta proposamen oso zehatzak, gogoetak... Dene-

tik, beraz, era guztietako interesak eta beharrak asetzeko.

Baliabideen atalean, hitzak ongi aski adierazten duen bezala, euskaraz arietzeko hamaika baliabide eskaintzen dira, eta horietara iristeko loturak edo argibide zuzenak. Baliabideen ataleko edukiak, baliabideak alegia, hauek dira: musika; jolasa; zinea eta marrazki bizidunak, app-ak eta jostailuak; ipuinak eta literatura; eskolaz kanpokoak; hezkuntza; eta gurasoentzako aholkuak.

Azkenik, agenda bat ere badago, Nafarroan antolatzen diren hainbat ekitaldi edo jardueraren berri ematen duena.

Webgune bat da eranafarroa eta, jakina, sare sozialetan ere ari da: Twitterren, Facebooken, Instagramen eta Youtubeen ere aurkituko duzu, nahi izanez gero.

Artikulu honetan www.eranafarroa.eus gunearen berri eman dizugu, eta bertan zer duzun azaldu. Nolanahi ere, eta bistan denez, webgunea zer den eta zer eskainiko dizun probatzeko eta egiaztatzeko modurik zuzenena eta onena bertan sartzea eta bertan nabigatzea da. Horretara gonbidatu nahi zaitugu, ziur gaude zure intereseko eta gustuko edukiak aurkituko dituzula.

Euskararen kriseilua

Erletako familiak argitzen



Gure eskola, gaur egun, kalitatezko heziketaren alde apustua eginez, euskararen erabilera sustatzen duen eragilea bihurtu da.

Kanpotik ere maiz esan digute zoriontzekoa dela eskolako hurrek euskara erabiltzea beren arteko harremanetan, bai eskolan, bai patioan, eta baita kalean ere. Zoriontzeko modukoa baita! Baina... gaztelaniaren eragina gero eta nabariagoa da gure egunerokoan. Hau honela, euskararen transmisioan eskola testuinguruaz gain, etxeko hizkuntza ohiturek eta jarrerak sekulako eragina dutenez eta helduok bide horretan eredu garela kontuan hartuz, Erleta eskolak aurrerapausoa emateko beharra ikusi du.

Horretan ari ginela, Euskaltzaleen Topaguneak bulzatutako "EUSKARAREN KRISEILUA" egitasmoaren berri izan dugu eta oso eragingarri iruditu zaigunez, aurrera eramatea pentsatu dugu. Hizkuntza su txiki, argitsu eta koloretsu baten moduan irudikatzen du Euskararen Kriseilua egitasmoak. Egitasmo hau euskara, elkarrekin zaindu, transmititu eta gure hizkuntza ohituren inguruko hausnarketa egiteko gonbidapena da.

Hizkuntzaren transmisioa ez da gramatika, hiztegi eta egitura erakustea bakarrik, jarrerak ere transmititzen dira eta horregatik, konpromisoak hartzea proposatu nahi dugu. Ez bakarrik etxean euskaraz aritzeko gai direnei, baita hizkuntza ez jakinagatik, euskararekiko maitasuna eta atxikimendua adierazi eta hedatu dezaketen guztioi ere.

Bi konpromiso proposatuko zaizkie proiektuaren hartzaileak izanen diren 3 eta 12 urte bitarteko hurren familiei:

- Lehenengoa euskararen sua bizirik mantentzea izanen da, Kriseilua etxera eraman, zaindu eta hizkuntza erabiliz.
- Bigarrena, Kriseilua etxean duten egun horietan, etxekoen hizkuntza ohituren inguruan hausnartzeko tarte bat hartu eta elkarrekin ohitura horiek hobetzeko konpromisoak aukeratzea litzateke.

www.kriseilua.eus webgunearen bidez egin ahal izanen da hausnarketa hori, han bertan proposatzen den galdetegia erantzunez. Honen bidez etxekoen hizkuntza-ohitura eta praktikak aztertuko dira.

Galdetegiaren emaitzen arabera, erronka batzuk proposatuko zaizkie familiei, eta kriseilua etxean dutenean erronka horiek betetzen ahaleginduko dira.

Euskararen kriseilua etxez-etxe ibiliko da Eguberri ondoretik Aste Santuak arte. Hiruzpalau egun izanen dute familiek etxean, eta ondoren beste familia batek hartuko du lekukoa. Familia bakoitzari Kriseilua etxean duten bitartean egitasmoa islatzen duen argazkiren bat bidaltzeko eskatuko zaio, baita beren esperientzia baloratuko duen galdetegia betetzeko ere. Bukaeran, denon parte-hartzea eskertu eta hartutako konpromisoak ospatzeko jai bat egingen da gaur egungo egoerak ahalbideratzen duen neurrian.

Erleta ikastetxeko Euskara Batzordea